



+

2.13 kapitulua



+


AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK





2.13.1. BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA

1999. urtean sortu zenetik, Berdintasun Zerbitzuak bide luzea egin du udalean eta udalerrian berdintasun politikak ezartzeko, eta hemen islatzen dira azken 17 urteetako **mugarri nagusietako batzuk**. Kapitulu honetan ez dugu zehatz-mehatz jaso nahi zerbitzu honek Berdintasunerako III. Planaren hasieratik egin duen lana, plan horren ebaluazio xehe bat egin genuelako 2015. urtearen amaieran, eta balorazio nagusiak bertan daudelako jasota. Aitzitik, garrantzitsua iruditzen zaigu hemen **garatu diren lan-ardatzen laburpen bat eskaintzea**, eta gero bereziki azpimarratzea udalerriko emakumeengan eragin handia izan duten proiektu estrategikoetako bat, aurreko kapituluetan garatu ez duguna: **Jabekuntza Eskolaz** ari gara.





2.13.1. BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEA

Esku hartzeko 4. ardatzaren helburua emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetzen eta betikitzen duten balioen aldaketan datza, emakumeen aurkako indarkeria (indarkeria sexista) nahiz eredu heterosexual nagusitik kanpo daude pertsonen aurkako indarkeria (lesbofobia, homofobia, transfobia) **detektatu eta prebenitzen** laguntzeko. **Indarkeria-egoerei arreta ematerakoan**, etxeko tratu txarren eta eraso sexualen aurrean erakundeen artean ekintza koordinatua eta eraginkorra mesedetu nahi da, biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatzeko.

1. ARDATZA: GOBERNANTZA

Gobernantzaren ardatzetik, funtsean, berdintasuneko udal politikoenganako konpromiso politiko eta teknikoak finkatu nahi da, generoaren transbertsaltasunaren estrategia garatzeko helburuz, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikuluan agintzen denez. Teknikariek eta politikariek genero-eten garrantzitsuenak identifikatzeko eta berdintasunerako udal planetan adostutako esku hartzeko neurriak aplikatzeko jakintza bereganatu behar dute apurka-apurka. Horretarako, erabakitzeko eta koordinatzeko funtsezko egiturak ezarri dira, bai maila politikoan bai maila teknikoan.

4. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO BIZITZA

Berdintasun Zerbitzuaren jarduketak **esku hartzeko 4 ardatzetan** egituratuta daude, EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako planen azken edizioetan ezarritako jarraibideak betez. Tokiko mailan, gaur egun arte, laneko lehentasunak berdintasunerako hiru udal planetan, elkarren segidakoak, islatu dira. Diagnostiko honek IV. Plana egiteko informazio garrantzitsua eskaintzen du.

2. ARDATZA: AHALDUNTZEA ETA BALIO-ALDAKETA

Balio-aldaketa, eredu androzentrista batetik eredu parekide batera, gizarte-eraldaketa prozesu konplexua da, pertsona bakoitzaren mentalitatean eta ordena sinbolikoa aldatu behar delako. Horretarako, emakumeak **ahalduntzeko** espazioak eta baldintzak sortu behar dira, eta horrela udalerrian duten parte hartze sozial eta politikoa sendotu. Lortutako aurrerapenak gorabehera, emakumeak desabantaila-egoeran daude prestigio sozial eta politikoko eremurik gehienetan, eta sarri-sarri gizonen baino posizio prekarioago batetik eta etendako presentziarekin parte hartzen dute jarduera ekonomikoan eta lan-merkatuan; horrek emakumeen autonomia ekonomikoa murrizten du, bai orainean bai geroan.

Ardatz honek, batik bat, gaur egungo **gizarte-antolaketaren** zutabeetako batean eragiten du; hau da, familia-inguruneke **zaintza**. Zaindutako pertsonen beharrezane nahi zaintzaileen (gehien-gehienak, emakumeak) beharrezane erantzuten die. Esku hartzearen premiak zerikusia dauka zaintza-lanak gaur egun ere lan nahiko ikusezina, akigarria eta gutxietsia –bai sozialki bai ekonomikoki– izatearekin. Zaintzen egoerari lanaren eremutik ere heldu zaio, bai gizarte eta osasun sektoreko langileei begira, **bai laneko nahiz familiako bizitza bateratu** behar dutenei begira. Laburbilduz, **erantzunkidetasun maila handiagoa** sustatu nahi dugu, bai zerbitzu publikoen eta familiaren artean, bai familien barruan.

3. ARDATZA: GIZARTE ANTOLAKETA ERANTZUNKIDEA



2.13.2. JABEKUNTZA ESKOLA

IBILBIDE LUZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOA

Getxoko Emakumeen Jabekuntza Eskola 2004. urtean hasi zen funtzionatzen, udalerria eskolen sarean sartu zenean, Basauri, Ermua eta Ondarroako udalekin batera.

Harrezkero, ehunka emakumek parte hartu dute proiektu honetan.

Honekin, Berdintasun Zerbitzuak emakumeen ahalduntzea lagundu gura izan du, eta beraien parte hartze politiko eta soziala bultzatu.

Hausnartzeko, eztabaidatzeko eta ikasteko gunea da eskola. Bertan, adin eta jatorri guztietako emakumeekin partekatu eta sareak sortu ahal izango dituzu.

Horretarako, prestakuntza-eskaintza anitza artikulatu da, hainbat lan-ildotan antolatua, hemen berriki eskaini ditugun zenbait ikastaroren adibideekin erakusten ditugunak:


- ✓ **Komunikazioa:** “Jendaurrean hitz egitea”; “Aktibatu zeure ahotsa”.
- ✓ **Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna:** “Neure mugak sentitzea”; “Geure burua maitatzen ikastea”.
- ✓ **Munduko emakumeekiko elkartasuna eta trukea:** “Emakume saharaiuen memoria berreskuratzen”; “Emakumeen arteko kulturarteko elkarrizketak”.
- ✓ **Feminismoa:** “Autodefentsa feminista”; “Begirada bat generoaren eraikuntzari”; “Indarkeria sinbolikoa”; “Feminismo postkoloniala”.
- ✓ **Osasuna:** “Zoru pelbikoa indartzea”; “Geure burua zainduz zaintzea”.
- ✓ **Kulturaren birdefinizioa:** “Artearen historia eta feminismoak: Non daude emakumezko artistak?”; “Feminismoa marrazten: Ilustrazio tailerra”; “Maiteminak euskal literaturan”.
- ✓ **Autonomia sendotzen:** “Auto-mekanikaren tailerra”; “Mundua zure gorpilen azpian”.

Hona hemen eskaintako plaza-kopuruaren eboluzioari buruzko informazioa, baita eskola sortu denetik aztertu den azken ikasturtera arte (2015-2016) ikasleen profilak izan duen bilakaerari buruzko informazioa ere.

Azken 12 urteetan, **eskaintako ikastaroen kopurua** aldatu egin da. 2006-2007 ikasturtean izan zen kopururik txikiena (9) eta handiena 2011-2012an (19). Azken 4 urteetan, eskaintza 14-15 ikastaroren inguruan egonkortu da, 2015-2016 ikasturteko 18 ikastaroetara iritsi arte.

Ikastaroen urteko ordu-kopuru osoa ere aldatu da, Eskolako lehen urteko 404 orduetatik aurrera. 2011-2012 ikasturtean 205 orduetara jaitsi ondoren, joera goranzkoa izan da berriro ere. 2015-2016 ikastaroan ikasleei 290 ordu eskaini zitzaizkien.

2.13.1 grafikoa. Jabekuntza Eskolak 2004-2005etik 2015-2016ra arte eskaintako ordu kopuruaren eboluzioa (Iturria: sistematizazio-txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016 ikasturtea).






2.13.2. JABEKUNTZA ESKOLA

IBILBIDE LUZEKO PROIEKTU ESTRATEGIKOA


Plaza-kopuruari dagokionez, ondoko taulan erakusten denez, hamabi urteko ibilbidean batezbestekoa 242 plaza izan da urtean. Azken bost urteetan, eskainitako plaza kopurua berdintsu mantendu da, baina azken ikasturtean (2015-2016) gehikuntza handia izan da, guztira 305 plazaraino.

2.13.2 grafikoa. Getxoko Jabekuntza Eskolak eskainitako plaza kopuruaren eboluzioa, 2004-2005etik 2015-2016ra. (Iturria: Sistematizazio txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016 ikasturtea).



Aitzitik, proiektuaren egonkortasuna baloratzeko orduan, daturik agian esanguratsuena, jasotako eskaera kopurua da. Izan ere, datu hau jaso den 10 ikastaroetan batez beste urteko aurreinskripzioko 414,2 eskaera tratatu dira. 2012-2013 eta 2015-2016 ikasturteak izan dira aurreinskripzioko bolumen handiena izan dutenak.

2.13.3 grafikoa. Jasotako aurreinskripzioko eskaeren kopuruaren eboluzioa, 2004-2005etik 2015-2016ra (Iturria: sistematizazio-txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016 ikasturtea).






2.13.2. JABEKUNTZA ESKOLA


IKASLEEN PROFILAREN EBOLUZIOA

Grafiko honetan islatzen denez, urteetan zehar, eskolako ikasleen batez besteko adina hauen artean egon da: 46,4 urte 2012-2013 ikasturtean eta 54 urte 2008-2009 ikasturtean.

2.13.4 grafikoa. Jabekuntza Eskolako ikasleen batez besteko adinaren eboluzioa 2005-2006tik 2015-2016ra. (Iturria: Sistematizazio txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016 ikasturtea).




2.13.5 grafikoa. Eskolan parte hartzen duten 30 urtetik beherako ikasleen eboluzioa, 2005-2006tik 2015-2016ra arte, ehunekotan. (Iturria: Sistematizazio txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016 ikasturtea).



Ikasleen adinarekin jarraituz, aurreko grafikoan ikusten da 30 urtetik beherako ikasleen portzentajea erlatiboki txikia izan dela, baina urteetan zenbait aldaketa jasan dituela. Eskolaren ibilbidearen zenbait momentutan, Berdintasun Zerbitzuak ikasle gazteak erakarri gura izan ditu, eskaintza bereziki interesgarria eginez edota beste ikastaro batzuetan plazak erreserbatuz. Hori adinaren estatistiketan islatu da normalean.

Hezkuntza-mailari dagokionez, Getxon unibertsitate-ikasketak dauzkaten ikasleen proportzioa oso altua da. Portzentajeak ehuneko 57a gainditzen du aztertu dugun denboraldi ia osoan, 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan izan ezik.

2.13.6 grafikoa. Unibertsitate-ikasketak dituzten eskolako ikasleen portzentajearen eboluzioa, 2004-2005etik 2015-2016ra. (Iturria: Sistematizazio txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016 ikasturtea).



Azkenik, hona hemen profileko beste datu interesgarri bat: azken 6 hilabeteetan ordaindutako lana dutela adierazi duten emakumeen portzentajea. Hasieratik, kopuru hori % 42,3aren (2008-2009 ikasturtea) eta % 61,9aren (2013-2014 ikasturtea) artean egon da. Horri batez besteko adin nahiko altua dagokio, eta emakumezko pentsiodun edo erretiratu kopuru handia.



2.13.2. JABEKUNTZA ESKOLA

IKASLEAK JABEKUNTZA ESKOLAZ HIZKETAN

Sistematizazio txosten bakoitzean, ikasleek ikastaro bakoitzaz egiten duten balorazioa jasotzen da: batez besteko notak 9 puntutik gorakoak izan ohi dira, eta oso gutxitan 8tik beherakoak, aztertu dugun azken ikastaroko grafikoak erakusten duenez, egindako eskaintzaren aniztasuna ere erakusten duena.

2.13.7 grafikoa. Ikastaroen balorazio orokorra - 2015-2016. (Iturria: Sistematizazio txostena, Jabekuntza Eskola, 2015-2016).



Eskolako sistematizazioko 2014-2015eko txostenetik, parte hartu zuten ikasleen iritzi orokorra ondorioztatu ahal dugu; normalean proiektuarekiko atxikipen handia sentitzen dute. Ikasleek izena ematea erabakitzekeko arrazoi nagusietariko bat da kezka berberak dituzten emakumezkoak ezagutzeko aukera izatea, bai eta eskaintako ikastaroen gaiet buruz duten interesa ere. Motibaziorako beste faktore bat genero kontuekin eta feminismoarekin pertsonalki sentsibilizatzea izan da. Hain zuzen ere, aukera handia da beraientzat mugimendu feministan gaitasun maila handia eta ibilbide luzea dauzkaten prestatazaileak ezagutzea.



Ikastaro hauek emakumeen bizitzan izan duten inpaktuari dagokionez, esan dute ikasitako eduki guztiek eguneroko bizitzako egoerak beste ikuspegi batetik interpretatzen lagundu dietela; argudioak eskaini dizkie, zenbait egoeraren aurrean erantzuten ikasteko, adibidez, genero-

ezberdintasunak erreproduzitzen dituzten egoerak, eta beren eguneroko ingurunean feminismoaren inguruko planteamenduak defendatu ahal izateko. Zentzu honetan, adierazi dute ikastaroeke tresnak eman dizkiela, argiago eta seguruago hitz egiteko. Horrek guztiak eragina izan du inguruarekin duten harremanean, eta inguruko pertsonekin (adibidez, familia barruan) harreman parekideagoak sortzen lagundu die.

Eskolan parte hartuz, era berean, norbanakoaren mailatik taldeko mailara igaro dira. Hau da, kasu batzuetan elkarrekin eratu dituzte eta estrategiak adostu dituzte berdintasuna beste espazio batzuetan



bultzatzeko (esate baterako, seme-alaben ikastetxeetan). Hain zuzen ere, elkarrekin batean parte hartzen dutela adierazten duten ikasleen proportzioa handia izan ohi da urtero. Horrela, intzidentzia politikoko eta gizarte-eraldaketako aukerak areagotzen dira, ikasitakoa parte hartzen duten elkarrekin zabaltzen dutelako.



Emakumeek, bestalde, azpimarratu dute espazio honekin identifikaturik sentitzen direla. Hau da, Eskola erreferente bihurtu da udalerriko emakume askorentzat. Gainera baloratu dute espazio honetan konfiantzako giro bat sortzen dela, eta horri esker emakumeek esperientzia eta bizipen pertsonalak konpartitu ditzaketela. Horrez gain, uste dute gero eta espazio pluralagoa dela, adin, ibilbide eta jatorri ezberdinetako pertsonen parte hartzearekin.



2.13.3. GOGOETARAKO PUNTUAK

JABEKUNTZA ESKOLARAKO NAHI DUGUN ETORKIZUNA

Orain arte egin diren sistematizazio-txosten guztiek berresten dute eskolan ematen diren ikastaroek inpaktu handia daukatela beraietan parte hartzen duten emakumeen bizitzan. Inpaktu horren ondorioak dira inguruarekin ezartzen dituzten harremanen hobekuntza (berdintasunezkoak diren harremanak ezartzeko lanabes gehiago dituzten neurrian), errealitatea interpretatzeko modu berria, eragin politikorako gaitasunaren hobekuntza eta feminismoaren eta antzeko gaien arloko gaitasun tekniko, teoriko eta praktikoen eskuraketa.

Espazio horrek, gainera, adin eta ibilbide ezberdinetako parte hartzaileen arteko lotura pertsonal eta profesionalak sendotzea ahalbidetu du. Horri dagokionez, oso balorazio positiboa egiten da eskolak sorrarazten dituen belaunaldi arteko loturez; horrelakoek bizipen eta esperientzia ezberdinak ezagutzeko eta partekatze bidea ematen baitute. Zentzu horretan, atzerriko emakumeen parte hartze erregularra (zeintzuen presentzia eskolan Immigrazio eta Kulturartekotasun Unitateak sustatzen duen) beste faktore positibo bat da trukerako eta elkar ezagutu eta aitortzeko.

Oro har, eskolan parte hartzen duten emakumeek sentsibilizazio maila handia daukate genero-berdintasunari eta feminismoari lotutako gaietan, aldez aurretik jasoa edo beren prestakuntza-ibilbidean zehar eskuratua. Beraientzat, eskola beraien beharrian eta kezkei erantzuten dien espazioa da; horregatik, eskolak duen inpaktua udalerriko emakume gehiagorengana zabaldu ahal izatea nahiko lukete. Aurretik ikusi dugunez, plazen eskaerak eskaintza gainditzen du urterik urte; hori proiektuaren arrakasta biribilaren erakusgarri da. Era berean, ikastaroen ordu-kopurua gehitzeko edo edukietan gehiago sakontzeko eskaera gero eta handiagoak arrakasta hori frogatzen du.

Espazio honetan parte hartzen eta hura konpartitzen jarraitzeko gogoak gidatuta, arrazoi ezberdinak tartean direla eskolara etortzen ez diren emakume-kolektiboengana iristeko bideak bilatu beharra azpimarratzen dute ikasleek. Beraien ustez, eskolak lotura beste espazio batzuekin duen sendotu beharko luke. Ikuspegi horretatik, aipatzen dute interesgarria izango litzatekeela udalaren beste sail batzuekin koordinazio handiagoa izatea eta, zehatzago, genero berdintasunarekin zerikusia duten ekimenak aurrera eramaten dituztenekin, hala nola Euskara, Kirol, Gazteria eta Immigrazio zerbitzuekin.

Zenbaitetan aipatu den hobekuntzarako beste puntu bat jarduera gehiago egiteko aukera da, ikastaroez haratago, eta ahal izanez gero ikasgelatik kanpo, eskolak udalerrian dituen ikusgarritasuna eta inpaktua areagotzeko.

Duela urte batzuk oso balorazio positiboa egin zen Martikoena kalean lokal berri bat prestatzeaz, eta harrezkero askatasun gehiago izan dugu eskolako egitaraua antolatze orduan, kultur etxeen okupazio-maila oso handia izan ohi baita. Lokal horrek, era berean, udalerriko zenbait emakume-talderentzako topaketa eta batzartze espazioa eskaintzen du, eta "espazio propioa" da; ikasle askok hura handitzea nahiko lukete, Emakumeen Etxea sortuz. Gogoeta horretan dago murgilduta udala une honetan, 2016. urtearen amaieran honelako tamainako proiektu batek izan litzakeen ezaugarriei buruzko kontsulta-prozesu parte hartzaile bat abiatu duena.

